

## Funtsezko Baliabideak

Gure negozioa aurrera eramateko gehien bat hurrengo giza baliabideak erabiliko ditugu: aplikazioa diseinatzeko eta merkataratzeko ezagutza eta sare sozialen bidez erabiltzaileak aurkitzeko gaitasun komertziala. Hauen artean, talde barruan falta zaigun bakarra aplikazioa diseinatzeko ezagutza da; aplikazioak diseinatzen ikasteko interneten dauden dohaineko baliabideak erabili genitzake, edo bestela programatzen dakien kide bat bilatu taldean sartzeko. Gainera, nahiz eta enpresaren langileak ez izan, hiztun natiboen ezagutza ere aplikazioa funtzionatzeko funtsezko baliabidetzat eman dezakegu.

Finantza baliabideen barruan, aplikazioa sortzeko eta mantentzeko dirua behar dugu soilik. Printzipioz ez dugu baliabide fisikorik erabiliko, taldekide bakoitzak duen ordenagailua eta mugikorra izan ezik.



Diseinua (irudi guztiak CC lizentzia dute):  
Lur planetaren irudia: Linuxerist  
Bunbuiloa: Ilya, Simpleshow Foundation-en